



TONTXU CAMPOS SAILBURUAK PRENTSA TITULAR ERRAZAK ERABILTZEN DITU

Egun hauetan, prentsan, Sailburuaren adierazpen ezberdinak irakurtzeko aukera izan dugu. Adierazpen hauekin, Sailburua, atentzioa desbideratzen saiatzen ari da, Hezkuntza komunitateari Irakaskuntza Publikoan dauden arazo larriak ezkutatzeko asmoarekin.

Nahiz eta irakasleriaren baja tasa beste sektoretan baino txikiagoa izan, bajen gaia prentsa titular bilakatu du. Hala ere, ez du aipatzen baja horien zergatiak zeintzuk diren, zein adin tartetan gehien gertatzen diren, ... Eta ez du esaten, Sailburuak badakielako hori esango baluke, esku-hartzeak egin beharko lituzkeela: giza-baliabideetan inbertsioak, materialetan inbertsioak, metodologian aldaketak, ...

Ordezkapenen gaia ere prentsa titulartzat erabili du, baina ez du esaten, sindikatuetatik, eta zehazki gure sindikatutik, proposamenak bideratu zaizkiola. Baina noski, proposamen hauek gauzatzeko aurrekontua behar da eta Jaurlaritzak, dirua beste zereginetan inbertitzen duenez, prekaritate handiena jasaten dutenei lan prekarioak eskaintzen dizkie. Hezkuntza Sailaren ardura da ikastetxetan suertatzen diren bajak laugarren eguna arte ez ordezkatzea. Negoziaketetan, gai honekin, jarrera gogorra eta hertsia eduki zuelarik.

Gogor salatu nahi dugu aurtengo esleipenetan Administrazioak behin eta berriro ordezkapen araudia ez duela errespetatu. Are gehiago, arautegiaren kontra eginiko esleipenak gauzatu direla salatzen dugu prozesuan zehar lanpostuak esleitzeko irizpide ezberdinak erabili dituztelako.

Ez du aipatu nahi izan, egun hauetan ikastetxetan, dagoen haserrea Sailburuak eta CCOO sindikatuak orain arte eduki dugun **ordainsarien egitura berdintzailea lehertu** dutelako.

Ez du aipatu nahi izan, sinatu berri duten 59 urteko irakasleentzat **bi orduko murrizketak ez duela ezer konpondu**.

Ez du aipatu nahi izan, Euskal herritik kanpo geroz eta ikasle gehiago datozela, eta egun ez dugula euren hizkuntza eta kultura errespetatuz, modu egokirik ikasle hauek gurean integratzeko.

Ez du aipatu nahi izan, **Europar aurrekontuetan** batz besteko **%6'5a hezkuntzara** bideratzen den bitartean **EAEn %3'6a**.

Hauek eta beste batzuk dira benetako arazoak eta Hezkuntza komunitateak hauentzat irtenbideak nahi ditu. LAB sindikatuak ere exijitzen dizkizu.

PRENTSA TITULAR GUTXIAGO ETA IRTENBIDE NEGOZIATU GEHIAGO!

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic KARRIKA 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org